

# DBH 3 HAUTAZKOAK 2025/2026

## OPTATIVAS 3º ESO 2025/2026

### ALEMAN TAILERRA I / TALLER DE ALEMÁN I

Hainbat hizkuntzatan hitz egiteko gaitasuna izateak, baita alemanez ere, gero eta garrantzi handiagoa du gaur egungo gizartean. Jabekuntza honi esker, ikasleek aukera dute bizitza, gizarte antolaketak eta pentsaera mota ezberdinak ezagutzeko eta euren enpatia eta tolerantzia sozio kulturala garatzeko.

Hizkuntzen Ikaskuntzarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarritzen da. Ikasleek euren hizkuntz gaitasuna gradualki garatzen dute alemana gelan erabiliz.

Metodologia eraikitzailea erabiltzen da, besteak beste proiektuen bitartez, komunikazioa helburu nagusia delarik. Bestalde, testu liburuak, materialek eta edukiek, ikasleen interesei, esperientziei eta nahiei egokitutako ekintzak eskaintzen dituzte.

*La capacidad de comunicarse en distintos idiomas, incluidos los extranjeros, como el alemán, es cada vez más valorada en la sociedad contemporánea. Dicha adquisición permite al alumnado conocer distintas formas de vida, de pensamiento y de organización social que ayudan a desarrollar la empatía y la tolerancia socio-cultural.*

*Este sigue las directrices establecidas por el Marco de Referencia Común Europeo para el Aprendizaje de Lenguas Extranjeras, a través de las cuales, el alumnado desarrolla gradualmente la competencia comunicativa en lengua alemana mediante su uso en el aula.*

*Se utilizará una metodología constructiva, sobre todo a través de proyectos, cuyo principal objetivo es la comunicación. En cuanto a los libros de texto, materiales y contenidos, estos proponen actividades adaptadas a los intereses, experiencias y ambiciones del alumnado.*

### FRANTSESA 3 / FRANCÉS 3

Ikasgai honen helburua idatziz zein ahoz, jarioetasunez eta zuzentasunez, frantsesa hizkuntza menperatzea da. Hizkuntza guztietan bezala bai gramatika, bai entzumenak, bai ahozko ariketak eta idazlanak egingo dira, baina ahozko komunikazioari emango zaio lehentasuna. Klaseetan pelikuak eta bideoak ere ikusiko dira, abestiak landuko dira, jarduera ludikoak egin; ikasleek proiektu ezberdinak egingo dituzte eta, adibidez, audioak eta bideoak sortuko dituzte, bai hizkuntzaren alderdi ezberdinak bai kulturartekotasuna lantzeko.

Azken hiruhilekoan egun guztirako txangoa egingo dugu gure ikasleak frantses hiztunekin eta frantses kulturarekin zuzeneko harremanean jartzeko xedez.

Horrez gain, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren barne dagoen A2 mailako azterketa egin nahi duten ikasleen prestakuntzarekin hasiko gara (Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketa edo DELF izenekoa)

*El objetivo de esta asignatura es que los alumnos dominen tanto la lengua escrita como la oral, con fluidez y corrección. Como en el estudio de todo idioma, se realizarán ejercicios tanto de gramática, como audios, ejercicios orales y redacciones, pero se le dará especial importancia a la comunicación oral. Para trabajar en las clases se utilizarán también películas, canciones, vídeos. Los alumnos realizarán diversos proyectos y crearán audios, vídeos etc. para trabajar tanto los aspectos lingüísticos como los culturales e interculturales.*

*En el tercer trimestre se realizará una excursión con el fin de que nuestros alumnos puedan tener contacto directo con personas de habla francesa y con la cultura francesa.*

*Además, empezaremos a preparar a los alumnos que deseen realizar el examen del nivel A2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (examen de la Escuela Oficial de Lenguas o bien el DELF).*

## **BIDEO ETA ZINEMA TAILERRA / TALLER DE VIDEO Y CINE**

Tailer honetan, ikasleek ikus-entzunezko produktuak (animazioak, erreportaia, albistegiak, film laburrak...) aurrera eramango dituzte. Hasieran, artisau prozedurak eta IKTak integratuz, ikasleek animaziozko pelikula laburrak sortuko dituzte STOP-MOTION teknikaren bitartez. Bigarren urratsean, ikasleek fikziozko pelikula sortuko dute. Horretarako, ikasleek gidoia egiten, planoak filmatzen eta filmatutako materiala editatzen ikasiko dute, betiere praktikan eta taldeko lanean oinarrituta.

*En este taller los alumnos/as tendrán que llevar a cabo diversos productos audiovisuales (animación, reportaje, informativo, cortometrajes...). Integraremos métodos artesanales y nuevas tecnologías para realizar cortos de animación con la técnica de STOP-MOTION. Más tarde, los alumnos/as crearán un cortometraje. Para ello, los alumnos/as aprenderán a elaborar el guión, a filmar los planos y a editarlos, teniendo siempre como base el trabajo práctico y en grupo.*

## **ELEKTRONIKA - ROBOTIKA ELEANITZA/ ELECTRÓNICA - ROBÓTICA PLURILINGÜE**

Ikasgaia nagusiki praktikoa da. Automatizazioaren hastapenak landuko dira, tailerrean proiektu ezberdinak sortuz: zirkuitu elektroniko ezberdinak, lehenengo robot sinpleak eta arduino plakarekin programatutako gailuak.

Nori zuzendua:

- Tailerrean erremintekin eta eskuekin lan egin nahi duenarentzat.
- Taldean lan egitea gustoko duenarentzat.
- Sormena eta irudimena teknologia berriekin (arduino plakak, gailu elektronikoak, 3D imprimagailuak... ) landu nahi dituenarentzat.

TALDE ELEANITZA behar adina ikaslek hala eskatuko balu, ikasgaia neurri batean ingelesez lantzeko taldea sortuko litzateke (erabiliko diren programak, txostenak eta abar ingelesez).

*La asignatura es eminentemente práctica. Se trabajarán los inicios de la automatización, creando diferentes proyectos en el taller: diferentes circuitos electrónicos, primeros robots simples y dispositivos programados con la placa arduino.*

*Dirigido a:*

- *Quien quiera trabajar la creatividad e imaginación con las nuevas tecnologías (placas de arduino, dispositivos electrónicos, impresora 3D, etc.).*
- *Quien quiera trabajar con herramientas y manos en el taller.*
- *Quien le guste trabajar en equipo.*

*Si el GRUPO PLURILINGÜE lo solicitara, un número suficiente de alumnos y alumnas, se creará un grupo para trabajar parte de la materia en inglés (programas que se van a utilizar, informes, etc. en inglés).*

## **GAUR EGUN / HOY EN DÍA**

Munduko, Espainiako, eta Euskal Herriko gaur egungo garrantzi handiko gertakarien zergatiak eta ondorioak ezagutzeko jakin-mina piztea da, ikasgaiaren helburu nagusia. Azterketa hori egiteko hainbat iturrietako informazioa erabiliko da, egunkariak, egunkari- digitalak, bideoak, ...

Ikasleak bakarka zein taldeka arituko dira. Informazioa landu ondoren, aurkeztuko dute: idatziz, ahoz, horma-irudien bidez, eta IKTak erabiliz (bideoak sortuz, PPT, prezi,.. ), eta debateak sortuz jarrera kritikoa sustatuko dute.

Bereziko kontutan izango da iritzi desberdinen errespetua (“enpatia”), lankidetzaz, eta aniztasun trataera.

*El principal objetivo de la asignatura es despertar la curiosidad por conocer las causas y las consecuencias de los acontecimientos de gran trascendencia mundial, española y vasca actuales. Para realizar este análisis se utilizará información de diferentes fuentes, periódicos, periódicos digitales, vídeos,...*

*El alumnado actuará tanto en solitario como en grupo. Una vez elaborada la información, la presentarán por escrito, oralmente, a través de los murales y utilizando las TIC (creando vídeos, PPT, prezi,...) y fomentarán la actitud crítica mediante la creación de debates.*

*En especial se tendrá en cuenta el respeto a las diferentes opiniones ("empatía"), la cooperación y el tratamiento de la diversidad.*

## **HEZIKETA DIGITALA ETA IKT III / EDUCACIÓN DIGITAL Y TIC III**

Ikasgai honekin aurrerapauso bat eman nahi dugu eta teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea bultzatuko dugu institutuko ikasleekin. Eskolan eta gizartean erabilera txarren ondorioak ikusten hasiak gara eta honi aurre egiteko asmoz, 2022-2023 ikasturtean martxan jarri dugun Heziketa Digitala HernaniBHI proiektuaren gehigarri bat bezala planteatzen dugu jakintzagaia.

Ikasgaiaren helburu nagusiak, Teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea; Pentsaera Konputazionalaren eremuak zeintzuk diren jakitea eta kontzienteki erabiltzea; eta digitalizazio alorrean, gaur egungo munduan aritzeko beharrezkoak diren sare aplikazioak eta ordenagailuaren ezaugarriak ikasiko ditugu. Etorkizunean izango dugun mundu akademikorako eta lan mundurako presta zaitez!

*Con esta asignatura queremos dar un paso adelante e impulsar el uso de las nuevas tecnologías de una manera consciente empezando por los alumnos más pequeños del instituto. Estamos empezando a ver las consecuencias de los malos usos en la escuela y en la sociedad, y con el objetivo de hacer frente a esto, en el instituto planteamos la materia como un añadido al proyecto de Educación Digital que pusimos en marcha el curso 2022-2023.*

*Los objetivos principales de la asignatura son conocer y utilizar las áreas del Pensamiento Computacional y aprender a utilizar de una forma más consciente, segura y colaborativa, respetando los derechos de autor, aplicaciones en red y las características del ordenador. ¡Prepárate para tu futuro académico y laboral!*

## **KULTURA ZIENTIFIKOA / CULTURA CIENTÍFICA**

Arlo honetan zientziaren inguruko gaien lanketa egingo dugu baina ikuspuntu kritiko batetik, hau da, gizartean eztabaida sortzen duten egoera garrantzitsuak jorratuz: astronomia (unibertsoaren esplorazioa), osasuna (osasun aurrerapenak), ingurumen inpaktuak (ingurumen aurrerapen teknologikoak), zientzialarien aurrerapenak eta ekarpenak.

Horretarako lan praktikoa izango dugu ardatz: erronkak edo proiektu ezberdinak eta laborategiko praktikak. Material ezberdinak erabiliko dira lanketa ezberdin horiek egiteko: filmak eta eztabaidak, programa digital ezberdinak, ikerketa artikulak eta laborategi tresneria.

*En esta asignatura vamos a trabajar temas científicos, pero desde un punto de vista crítico, es decir, abordando situaciones importantes que generan controversia en la sociedad: astronomía (exploración del universo), salud (avances en salud), impactos ambientales (avances ambientales tecnológicos), avances científicos y aportaciones.*

*Para ello nos centraremos en el trabajo práctico: diferentes proyectos y prácticas de laboratorio. Se utilizarán diferentes materiales: películas y debates, diferentes programas digitales, artículos de investigación y herramientas de laboratorio.*

## **KULTURA KLASIKOA / CULTURA CLÁSICA**

Gizarte guztien aurrerapenaren oinarria zein den jakiteko, gizarte horien historia ezagutu behar da. Europako historian funtsezko garrantzia izan dute Greziako eta Erromako zibilizazioek, eta beraz, ezinbestekoa da haien aztertzea eta ezagutzea. Kultura Klasikoa irakasgaia ikastearen xedeak hauek dira: ikasleei beren ingurunean gizarteari, kulturari eta hizkuntzari buruzko ikuspegi zehatza eta kritikoa ematea; eta klasikoengandik jasotako kultura- eta arte-ondare guztia zaintzeko eta iraunarazteko interesa sustatzea. Horretarako zera ikasiko dugu: Grezia eta Erromako historia, janariak, ohiturak, hezkuntza, jantziak eta batez ere MITOLOGIA. Izan ere, ikasgai hau mitologian oinarrituta dago.

*Para conocer cuál es la base de los adelantos de nuestras sociedades hay que conocer la historia de estas sociedades. En la historia de Europa han tenido mucha importancia las civilizaciones griegas y romanas, por lo tanto, es imprescindible estudiarlas. Los objetivos de esta asignatura son: dar un punto de vista crítico y exacto sobre la cultura, la sociedad y la lengua que rodea a los alumnos/as; mantener el interés para cuidar y preservar la cultura y el arte que hemos recibido de los autores/as clásicos/as. Para eso se estudiarán: la historia de Grecia y de Roma, las costumbres, el idioma, la vestimenta y sobre todo la MITOLOGÍA. Precisamente toda la asignatura está basada en la mitología.*

## **LABORATEGI TAILERRA / TALLER DE LABORATORIO**

Ikasgai honen helburuak dira, alde batetik, ikasleak laborategiko lan-metodologia maneiatzea, lan egiteko arauak, oinarritzko elementuak eta teknikak ezagutzeko eta, bestetik, Zientzia eta Ingurugiroarekin zerikusirik duten eguneroko fenomenoak ulertzeko beharrezkoak diren oinarritzko irizpide zientifikoak eskaintzea.

Irakasgaiak tratamendu esperimental eta praktikoa barne hartu eta bertan arreta berezia jarri behar du. Ikasleek beren eguneroko egoerekin loturak egin ahal izan ditzaten eta hauei trebetasun zientifikoak garatzen lagunduko die, pentsamendu zientifikoak garatzeko eta zientzia eraikitzeko oinarriak sortzeko, horrek dakarren guztiarekin: behaketa, gai zientifikoak planteatzea, ebidentziak bilatzea, ikertzea eta eguneroko informazioa behar bezala tratatzea. Horrela, ikasleen artean hezkuntza zientifikoak bultzatu nahi da —ondorengo hezkuntza etapetan ibilbide zientifikoak jarraitzeko beharrezkoak—, edo zientzia-oinarri sendoa ezarri nahi da ibilbide ez-zientifikoak egin nahi dituzten ikasleentzat.

*Los objetivos de esta materia son, por un lado, que el alumno o alumna maneje la metodología de trabajo del laboratorio, conociendo las normas de trabajo, los elementos y técnicas básicas y, por otro, que ofrezca los criterios científicos básicos necesarios para comprender los fenómenos cotidianos relacionados con la Ciencia y el Medio Ambiente.*

*La materia debe incluir y prestar especial atención al tratamiento experimental y práctico. Les ayudará a ganar habilidades científicas para desarrollar el pensamiento científico y crear las bases para la construcción de la ciencia, con todo lo que ello conlleva: observación, planteamiento de*

*temas científicos, búsqueda de evidencias, investigación y tratamiento adecuado de la información diaria. Con ello se pretende impulsar la educación científica entre el alumnado, necesaria para seguir los itinerarios científicos en etapas educativas posteriores, o establecer una base científica sólida para el alumnado que desee realizar itinerarios no científicos.*

## **MATEMATIKA INDARTZEA / REFUERZO DE MATEMÁTICAS**

Tailer honen helburua Matematikako kontzeptuak indartzea da, beraz irakasgai honekin zailtasunak izan dituzuenoi zuzenduta dago. Lehenengo zikloan ikasitakoa birpasatuko da oinarria sendotzeko asmoz, eta aldi berean 3. mailako edukiak landuko dira irakasgai horri aurre egiteko.

Lan dinamika gelan lan egitekoa izango da, azterketarik gabe. Portaera egokia eta gelan lan eginez gero lasai eramateko irakasgaia eta kurtso horretako Matematikako derrigorrezko irakasgaia gainditzeko laguntza eskainiko dizuna.

*El objetivo de este taller es reforzar los conceptos de Matemáticas, por lo que está dirigido a alumnos que hayáis tenido dificultades con esta asignatura. Se repasará lo aprendido en el primer ciclo con el objetivo de reforzar la base, al tiempo que se trabajarán los contenidos de 3º curso para afrontar mejor esta asignatura.*

*La dinámica de trabajo consistirá en trabajar en el aula, sin exámenes. Con un buen comportamiento y trabajo será un taller fácil de llevar y te ayudará a aprobar la asignatura de Matemáticas obligatoria de tercero.*

## **MUSIKALA. MUSIKA ETA BESTELAKO ADIERAZPIDE ARTISTIKOAK / MUSICAL. MÚSICA Y OTRAS EXPRESIONES ARTÍSTICAS**

Musikak betidanik harreman handia eduki du bestelako hainbat adierazpide artistiko eta kulturekin: dantza, hitza, irudia, teknologia, arte plastikoa... Tailer honetan arte adierazpen guztiak arte lan bakar batean bilduko ditugu MUSIKAL bat sortzeko.

*La música siempre ha tenido una relación muy estrecha con otras expresiones artísticas como la danza, la literatura, la imagen, la tecnología, las artes plásticas...; en este taller vamos a unificar todas estas expresiones artísticas para crear nuestro propio MUSICAL.*

## **OSASUN FISIKOA ETA EMOZIONALA / BIENESTAR FÍSICO Y EMOCIONAL**

Jarduera fisiko osasuntsu eta aktiboa sustatzea da gure helburua, bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko. Horretarako, jarduera fisiko, jolas, eta kirolak egingo ditugu gaitasun desberdinak landuz eta aisia era aktiboan egiteko aukerak zabalduz emozioei garrantzia emanaz.

Helburua da harremanetan trebatzea, parte-hartzea sustatzea, elkarlanaren balioaz jabetzea, sentimendu eta emozioak kanporatzea. Hori guztia gorputzaren mugimenduak baliatuz eta buru-ideiak aktibatuz.

*Con el fin de mejorar nuestra salud y calidad de vida se potenciará la actividad física saludable y activa. Para ello se trabajarán diferentes actividades físicas, deportivas y lúdicas dando relevancia a las emociones.*

*El objetivo es formar en relaciones, fomentar la participación, tomar conciencia del valor de la colaboración, exteriorizar sentimientos y emociones. Todo ello utilizando los movimientos del cuerpo y activando las ideas mentales.*

## **PENTSAMENDU AUTONOMO ETA KRITIKOAREN HASTAPENAK**

### ***INICIACIÓN AL PENSAMIENTO CRÍTICO Y AUTÓNOMO***

Ikasgai honetan pentsamendu kritikoa eta autonomia landu nahi da. Etengabe aldatzen ari den gure mundu honetan beharrezkoa ikusten dugu elkarrizketarako, gauzak zalantzan jartzeko eta gogoetarako jarrera bultzatzea, norberak munduan duen lekua aurki dezan. Horretarako argudiozko elkarrizketan trebatuko gara, gure garaiko erronka sozialei erreparatuz alde batetik, eta heziketa emozionala zainduz bestetik.

Gure arazoibideak eta emozioen kudeaketa gai hauen bueltan landuko ditugu bereziki: adiskidetasuna, maitasuna, sexualitatea, aisialdia, globalizazioa, arazo eko-soziala, genero-desberdintasuna, garapen teknologikoa, zoriontasuna etab.

Teoria eta praktika uztartuz, azalpen sinpleak, ikus-entzunezkoak, gogoeta bultzatzeko elkarrizketak nahiz bizipenezko dinamika parte-hartzaileagoak txandakatuko dira.

*En esta materia se pretende cultivar el pensamiento crítico y autónomo. En un mundo como el nuestro, en constante cambio, vemos necesario impulsar actitudes de diálogo, cuestionamiento y reflexión para que cada uno encuentre su lugar en el mundo. Para ello nos formaremos en el diálogo argumental, atendiendo por un lado a los retos sociales de nuestro tiempo y por otro cuidando la educación emocional.*



*Centraremos nuestros razonamientos y la gestión emocional en temas como la amistad, el amor, la sexualidad, el ocio, la globalización, el problema eco-social, la desigualdad de género, el desarrollo tecnológico, la felicidad, etc.*

*Combinando teoría y práctica, se alternarán explicaciones sencillas, audiovisuales, conversaciones para impulsar la reflexión y dinámicas vivenciales más participativas.*